Getxo
KULTUR ETXEA

**ACTA DE LA JUNTA RECTORA DEL AULA DE CULTURA CELEBRADA EL DIA 20 DE FEBRERO DE 2018 EN EL AYUNTAMIENTO DE GETXO CON LA ASISTENCIA DE LOS MIEMBROS QUE SE MENCIONAN A CONTINUACION**

**KULTUR ETXEAREN ARTEZKARITZA-KONTSEILUAK 2018KO OTSAILAREN 20AN GETXOKO UDALETXEAN EGINDAKO BILERAREN AKTA; JARRAIAN ZERRENDATUTAKO KIDEAK BERTARATU ZIREN**

**ASISTENTES**

**PRESIDENTE**
D. Koldo Iturbe

**VOCALES**
Dña. Amaia Aguirre
Dña. Elena Coria
D- Alvaro Gonzalez
D. Ignacio Uriarte
D. Joseba Arregui
D. Ignacio Gamero
Dña. Susana de Cos
D. Miguel Ibabe
Dña. Susana Andollo
Dña. Paula Amieva
D. Enrique Prada
Dña. Nerea Guijarrubia
D. Ibon Rodriguez
Dña. Maite Arraiza
D. Jose Luis Landa
D. Santiago Sainz

**BERTARATUTAKOAK**

**PRESIDENTEA**
Koldo Iturbe jauna

**KIDEAK**
Amaia Aguirre andrea
Elena Coria andrea
Alvaro Gonzalez jauna
Ignacio Uriarte jauna
Joseba Arregi jauna
Ignacio Gamero jauna
Susana De Cos andrea
Miguel Ibabe jauna
Susana Andollo andrea
Paula Amieva andrea
Enrique Prada jauna
Nerea Guijarrubia andrea
Ibon Rodriguez jauna
Maite Arraitza anderea
Jose Luis Landa jauna
Santiago Sainz jauna

**ORDEN DEL DIA**

**1. Propuesta de aprobación del acta de la reunión celebrada el día 23 de enero de 2018.**
Al no haber propuesta de modificación se da por aprobada.

**2.- Propuesta de aprobación de la modificación de la RPT.**

Con relación al segundo punto, aprobación del cambio en la RPT, el día 13 de este mes tuvimos un reunión en la que se os pasó la información, por un lado la creación de nuevos puestos de trabajo y por otro lado la propuesta de modificación de perfiles lingüísticos.

**GAI-ZERRENDA**

**1.- 2018ko urtarrilaren 23an egindako batzarraren akta onesteko proposamena.**

Ez dagoenez aldatzeko proposamenik, akta onetsi da.

**2.- Lanpostu-zerrendaren aldaketa onesteko proposamena.**

Bigarren puntuari dagokionez (lanpostu-zerrendaren aldaketa onestea), hilaren 13an egindako bileran, informazioa eman zitzaizuen: alde batetik, lanpostu berriak sortzeari buruz; eta, beste aldetik, hizkuntza-eskakizunak aldatzeko proposamenari buruz.

Antes de pasar a la votación, hay alguna pregunta?, queréis explicar vuestra posición?

Ibon Rodriguez:
Nosotros nos abstendremos, por un lado damos por bueno el cambio en la RPT por que los trabajadores así lo han solicitado, por lo tanto no tenemos nada que decir, pero por otro lado este cambio tiene influencia en Romo Kultur Etxea, pero este cambio no solucionará el debate que estáis manteniendo con los conserje sobre los horarios, por otro lado echamos en falta y quisiéramos conocer más sobre las necesidades que conllevará la apertura de Romo Kultur Etxea y también la del Getxo Antzokia, por un lado los medio económicos, una cosa es hacer un edificio pero luego ese edificio se tiene que mantener abierto, hay que llevar a cabo una programación y también que cambios conllevará a nivel de personal. Finalmente, son equipamientos nuevos y como equipamientos nuevos necesitarán más personal o se necesitarán otros horarios y en nuestra opinión eso necesita una planificación y nos parece que en este caso hay una gran improvisación.

Por lo que por esa parte no nos parece bien y nos abstendremos. Esto es, estamos de acuerdo con la modificación de la RPT pero vemos una gran improvisación, cuando vemos que se han llevado a cabo unos concursos para subcontratar personal, ya sabemos que la palabra subcontratados no os gusta pero entendeis lo que quiero decir, es decir, que trabajarán en el mismo espacio trabajadores públicos y trabajadores de una empresa privada. Por ejemplo, como ocurre en Getxo kirolak, y eso nosotros no lo aprobamos
Por lo que nos abstendremos y a la vez hacemos una petición, las necesidades que conlleva la planificación del Getxo Antzokia y de Romo Kultur etxea y las conseecuencias que conllevará a nivel de personal y a nivel de medios.

KOLDO:
Una cosa, por aclarar, has comentado las dificultades que estamos teniendo con los

Bozketara jo aurretik, egin nahi al du norbaitek galderaren bat? Azaldu nahi al duzue zuen jarrera?

Ibon Rodríguez:
Gu abstenitu egingo gara. Alde batetik, ontzat ematen dugu lanpostu-zerrendaren aldaketa, langileek hala eskatu dutelako; beraz, ez dugu zer esanik horri buruz. Baina, beste alde batetik, aldaketak eragiten dio Romo Kultur Etxeari, baina ez du konponduko ordutegiei buruz atezainekin daukazuen eztabaida. Beste alde batetik, informazio handiagoa nahi genuke, faltan nabaritzen baitugu, zer beharrizan ekarriko dituen Romo Kultur Etxea zabaltzeak, eta baita Getxo Antzokia zabaltzeak: bai baliabide ekonomikoei dagokienez, zeren gauza bat da eraikin bat egitea, baina gero hura zabalik mantendu behar da, eta programazio bat gauzatu behar da; bai pertsonalari dagokionez, zer aldaketa ekarriko dituen. Azkenik, ekipamendu berriak direnez, eta, hala izanik, langile gehiago eskatuko dutenez, edo beste ordutegi batzuk beharko direnez, gure ustez, horrek plangintza egitea eskatzen du; eta iruditzen zaigu inprobisazio handia dagoela arlo horretan.
Horregatik, alde hori ondo iruditzen ez zaigulako, abstenitu egingo gara. Izan ere, ados gaude lanpostu-zerrendaren aldaketarekin, baina inprobisazio handia ikusten dugu, ikusten dugunean lehiaketak egin direla langileak azpikontratatzeko. Badakigu "azpikontratatu" hitza ez duzuela gogoko, baina ulertzen duzue zer esan nahi dudan: eremu berean lan egingo dute langile publikoek eta enpresa pribatu bateko langileek. Gauza bera gertatzen da, adibidez, Getxo Kirolaken, eta ez dugu onartzen hori.

Horrenbestez, abstenitu egingo gara, eta, aldi berean, eskatzen dugu jakinaraztea zer beharrizan ekarriko dituen Getxo Antzokiaren eta Romo Kultur Etxearen plangintzak, eta zer ondorio ekarriko dituen pertsonalari dagokionez zein baliabideei dagokienez.

KOLDO:
Gauza bat, argitzearren. Aipatu dituzu atezainekin ordutegiak adosteko izan ditugun


Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 – E-mail: kulturetxea@getxo.eus

conserjes para acordar los horarios. Nosotros hemos tenido diversas reuniones, y yo he estado en ellas, y en la último reunión acordamos con todos los conserjes cuales serían sus horarios. Se les ha remitido el escrito con el acuerdo alcanzado y estamos a la espera de recibirlo firmado. No sé qué más están discutiendo pero esa es la situación actual. Hemos acordado una horario para Romo Kultur Etxea, Villamonte y Sala Torrene. No tengo ninguna noticia sobre ello por parte de los conserjes.

zailtasunak. Guk zenbait bilera izan ditugu, eta ni egon naiz haietan, eta, azken bileran, atezain guztiekin adostu genuen zer ordutegi izango zituzten. Lortutako akordioa idatziz helarazi zaie, eta sinatuta jasotzearen zain gaude. Ez dakit zer gehiago ari diren eztabaidatzen, baina horixe da gaur egungo egoera. Ordutegia adostu dugu Romo Kultur Etxerako, Villamonterako eta Torrene Aretorako. Ez dut horri buruzko inongo berririk atezainen partetik.

IBON:
Yo no sé cuándo habéis tenido esa reunión, pero la última información que tenemos es que ellos y los delegados sindicales no ven bien la redacción del acta por que no aparecen las propuestas concretas, sino frases como," se propone, se comenta que se puede..." es verdad que aparece una propuesta, pero según parece, no todos los sindicatos están de acuerdo. De todas formas, la cuestión principal no es esa, con el horario de los conserjes puede haber negociaciones pero para nosotros el problema es la falta de planificación, lo que pedimos y lo que queremos conocer, no decimos que no haya, sino que nosotros no la conocemos, por tanto, queremos conocer qué planificación se ha hecho para abrir esos dos equipamientos, los medios que se necesitan. Eso es lo que solicitamos. Luego esa negociación o conflicto se ha resuelto? Mejor si es así.

IBON:
Nik ez dakit noiz egin duzuen bilera hori, baina, daukagun azken informazioaren arabera, haiek eta sindikatuetako ordezkariak ez daude ados aktaren idazketarekin; izan ere, ez dira ageri proposamen zehatzak, eta haien ordez, "proposatu da", "komentatu da egin daitekeela ..." eta antzeko esaldiak ageri dira. Egia da proposamen bat ageri dela, baina, dirudienez, ez daude ados sindikatu guztiak. Dena den, kontu nagusia ez da hori; agian badaude negoziazioak atezainen ordutegiarekin, baina guretzat arazoa da plangintzarik eza. Eskatzen dugu, eta jakin nahi dugu, ez dugu esaten ez dagoenik baizik eta ez dugula haren berririk, eta horregatik jakin nahi dugu zer plangintza egin den bi ekipamendu horiek irekitzeko, eta zer bitarteko behar diren. Horixe eskatzen dugu. Gero, konpondu al da negoziazio edo gatazka hori? Hala bada, hobeto.

KOLDO:
Yo he hablado con los sindicatos y con los trabajadores, pero lo que me asombra es que un grupo de la oposición sepa algo que yo como Presidente no sé. A nosotros formalmente no se han dirigido ni sindicatos ni trabajadores, el tema de los conserjes no lo entiendo, hablaré con ellos.

KOLDO:
Nik berba egin dut sindikatu eta langileekin, baina harritzen nau oposizioko talde batek jakiteak nik ez dakidan zerbait, presidentea bainaiz. Guregana ez dute formalki jo, ez sindikatuek, ez langileek; ez dut ulertzen atezainen kontu hori, haiekin egingo dut berba.

PAULA:
Nos gustaría pedir desde GUK que se hiciera un cambio y que en vez de concurso, pusiera concurso-oposición porque estamos de acuerdo con este proceder, creemos que es lógico que se incluya en la RPT estos puestos de carácter estructural, pero creemos que no es la forma de

PAULA:
GUK taldekook eskatu nahi dugu aldaketa bat egin dadila, eta "lehiaketaren" ordez, "lehiaketa-oposizioa" jartzea, horrela jokatzearekin ados baikaude; uste dugu logikoa dela lanpostu-zerrendan sartzea lanpostu estruktural horiek, baina uste dugu hura ez dela lanpostu

provisión que se establece para cada uno de los puestos, porque en cada uno de ellos, parece que se está yendo en contra de la forma de provisión que para puestos idénticos o similares está establecido en la RPT que es concurso-oposición. Creemos además que aquí no se dan las circunstancias que recoge la Ley de Función Pública Vasca que es una provisión excepcional para puestos concretos con una experiencia y con unos conocimientos que son excepcionales. En caso de que esta modificación no se considere por el Presidente, en nuestro caso votaremos en contra, porque creemos que esta modificación de la RPT está llevando a cabo una forma de modificar la misma que no nos parece que este ajustada a lo que ha sido la RPT hasta ahora. Que como digo hemos visto que pone en todas concurso-oposición.

Creemos que se está vulnerando el artículo 27.1 de la Ley de Función Pública Vasca y creemos que con esto se está llegando a una restricción que nos parece inaceptable a la igualdad del acceso al empleo público.

Señalar que en la Ley de Función Pública Vasca el concurso es una forma de provisión de puestos excepcional como he dicho, ya que está prevista en exclusiva para puestos de trabajo, según dice, que "...*en atención a sus peculiares características deban ser cubiertos por personal con méritos determinados, niveles de experiencia concretos o condiciones no acreditables mediante pruebas objetivas de conocimiento*". Lo que vemos que no es el caso tal y como demuestra la RPT del Aula de Cultura.

Entonces, si no se acepta nuestra propuesta, pues votaremos en contra, a no ser que se lleve a cabo pues vemos que lo que se plantea es una elección a través de un sistema de provisión que está buscando que estas personas que actualmente desempeñan puestos, que se queden en propiedad, porque es verdad que tienen que pasar a ser parte de la RPT en un futuro concurso, pero se está vulnerando los principios que rigen el acceso al empleo público. De ahí nuestra propuesta de posible modificación.

bakoitzerako ezarrita dagoen hornikuntza-modua, horietako bakoitzean ematen baitu lanpostu-zerrendan postu berdinetarako edo antzekoetarako ezarrita dagoen hornikuntza-moduaren aurka jotzen ari dela, hura lehiaketa-oposizioa baita. Gure ustez, gainera, hemen ez dira gertatzen Euskal Funtzio Publikoaren Legeak jasotzen dituen kasuak, horren arabera lanpostu zehatzetarako salbuespenezko hornikuntza da, salbuespenezko esperientziarekin eta ezagutzekin. Presidenteak kontuan hartzen ez badu aldaketa hau, aurkako botoa emango dugu, gure ustez lanpostu-zerrendaren aldaketa hori eragiten ari baita hura aldatzeko modu bat zeina gure ustez ez baitator bat orain arte lanpostu-zerrenda izan denarekin. Esan dizuegun bezala, ikusi dugu "lehiaketa-oposizioa" jartzen duela guztietan.

Uste dugu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 27.1. artikulua urratzen ari dela, eta horrekin murrizten ari dela enplegu publikoan sartzeko berdintasuna; onartezin deritzogu murrizketa horri.

Adierazi behar dugu Euskal Funtzio Publikoaren Legean lehiaketa dela lanpostuak hornitzeko salbuespenezko modu bat, lehen esan dudan bezala; legeak dioenez, bakar-bakarrik aurreikusita dago honelako lanpostuetarako: "... *zer-nolako bereziak dituen lanpostua izanik, jakineko merezimenduak dituen, berariazko esperientzi maila edo ezagupenei buruzko saio objektiboen bidez ezin egiazta daitezkeen baldintzak dituen langileriak bete behar baditu*". Eta ikusten dugu ez dela hori gertatzen, Kultur Etxearen lanpostu-zerrendak erakusten duen moduan.

Ondorioz, gure proposamena onartu ezean, aurkako botoa emango dugu, hala egiten ez bada; izan ere, ikusten dugu planteatzen ari dela hautaketa egitea lanpostuak betetzen ari diren pertsonak horiek jabetzan geratzea helburua duen hornikuntza-sistema baten bidez; egia da lanpostu-zerrendan sartu behar direla hurrengo lehiaketa batean; baina urratzen ari dira enplegu publikora sartzea eraentzen duten printzipioak. Horregatik egin dugu aldaketa-proposamena.



Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 – E-mail: kulturetxea@getxo.eus

KOLDO:
Os contesté el primer día, cuando repartí la documentación, después en las conversaciones que habéis tenido conmigo, os he contestado lo mismo, os habéis dirigido a los técnicos, algunos habéis hablado con los técnicos, y este Presidente sin el visto bueno de los técnicos no seguiría adelante, eso dice el informe de los técnicos y lo que ellos dicen es que tiene que figurar cuando se cubre la plaza y cuando se cubre el puesto de trabajo, y cuando se tramita la oferta pública es cuando es obligatorio el "concurso-oposición" y así se hará, pero en este caso estamos creando la relación de puestos y en ese caso el modo de provisión es de "concurso". Esto es, una cosa es crear la plaza y otra es cuando tienes en posesión la plaza es totalmente legal utilizar el "concurso" para acceder al puesto de trabajo. Así lo dicen en fiscalización. Así nos lo dice fiscalización y así nos lo dice el Secretario Municipal, vosotros también habéis hablado con los técnicos y parece que nos estáis convencidos, respeto lo que entendéis pero yo sí creo en la opinión de los técnicos y por ello seguiremos adelante. Cuando se haga la oferta pública de empleo se sacarán como "concurso-oposición".

PAULA:
Cualquiera de los miembros que puedan estar aquí, por si quieren comprobarlo, dentro de la modificación de la relación de puestos de trabajo, no pongo en duda el criterio de los técnicos y de las técnicas, pero sí que nos resulta raro que dentro de la RPT que ya existe del Aula de Cultura, en cada uno de ellos ponga que la forma de provisión es CO, dentro de la lista que pone que es CO es concurso-oposición, no es sólo concurso, de ahí que pidamos que estos puestos y plazas que van a pasar a ser de la RPT sean con la misma forma de provisión, porque entonces no comprendemos porque unos son por "concurso" y otros son por "concurso-oposición". No le vemos el sentido. Es lo mismo que hemos trasladado esta mañana de una manera más informal. Seguimos viendo que aquí hay una diferencia de trato con unos trabajadores y trabajadoras que al final es lógico, como digo, estamos a favor de que pase a regularse, de que pasen a estar en la RPT, pero

KOLDO:
Lehenengo egunean erantzun nizuen, dokumentazioa banatu nuenean; gero, nirekin izan dituzuen elkarrizketetan, gauza bera kontatu dizuete; teknikariengana jo duzue, eta batzuek berba egin duzue teknikariekin. Presidente honek ez luke aurrera egingo teknikarien oniritzirik gabe; hori esaten du teknikarien txostenak, eta haiek esaten dute jaso behar dela noiz betetzen den plaza eta noiz betetzen den lanpostua, eta eskaintza publikoa tramitatzen denean orduan dela beharrezkoa "lehiaketa-oposizioa". Eta halaxe egingo da, baina kasu honetan lanpostu-zerrenda sortzen ari gara, eta dagokion hornikuntza-modua "lehiaketa" da. Gauza bat da plaza bat sortzea, eta beste gauza bat da plaza jabetzan duzuenean guztiz legezkoa dela "lehiaketa" erabiltzea lanpostura sartzeko. Halaxe esan dute fiskalizazioan. Halaxe esan digu fiskalizazioak, eta halaxe esan digu udal-idazkariak. Zuek ere teknikariekin berba egin duzue, eta badirudi ez zaudetela konbentzituta; errespetatzen dut zuek ulertzen duzuena, baina nik bai sinesten dut teknikarien iritzia, eta, horregatik, aurrera jarraituko dugu. Enplegu-eskaintza publikoa egiten denean, "lehiaketa-oposizio" gisa aterako dira.

PAULA:
Hemen dagoen edozein kidek, egiaztatu nahi badu, lanpostu-zerrendaren aldaketaren barruan, ez dut zalantzan jartzen teknikarien irizpidea, baina bai arraro egiten zaigu dagoeneko Kultur Etxean dagoen lanpostu-zerrendaren barruan jartzea horietako bakoitzean CO dela hornikuntza-modua; zerrenda horretan jartzen du CO lehiaketa-oposizioa dela, ez bakarrik lehiaketa. Horregatik eskatzen dugu lanpostu-zerrendan egongo diren lanpostu eta plaza horiek hornikuntza-modu berekoak izan daitezela, zeren ez baitugu ulertzen zergatik horietako batzuk diren "lehiaketaren" bidez, eta beste batzuk "lehiaketa-oposizioaren" bidez. Ez diogu zentzurik ikusten. Horixe bera jakinarazi dugu goizean, modu informalagoan. Jarraitzen dugu ikusten trataera ezberdina dagoela langile batzuekin; azkenean, logikoa da, esan dudan bezala, lanpostu-zerrendaren barruan sartzea, baina ez dugu ulertzen zergatik duten trataera ezberdina eta ez duten egiten "lehiaketa-



Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 – E-mail: kulturetxea@getxo.eus

no comprendemos porque tienen un tratamiento diferente y no es por “concurso-oposición” igual que consta el resto de la RPT excepto el puesto de Director Gerente que lógicamente pone que es de alta dirección y es de “libre designación”.
Entonces, nos genera esa duda, no lo entendemos y entenderíamos que pasarían a estar dentro de la RPT con un tratamiento diferente. Entonces estamos a favor de que estén los trabajadores pero no entendemos como se les puede dejar con ese descubierto dentro de una RPT con un trato diferente. De ahí la petición.
KOLDO:
Recogemos tu queja y pasamos a votación.
Votos a favor: 7 (PNV,PSE)
Votos en contra 3 (GUK)
Abstenciones. 7 (PP, EH BILDU, CS)
Por lo tanto se da por aprobada y pasamos al siguiente punto,

**ACTIVIDADES REALIZADAS**

ACTIVIDADES REALIZADAS

*Domingo, 4*

**XXXII FESTIVAL DE COROS DE STA. ÁGUEDA**
Como es tradicional, canciones en honor de Santa Águeda por las calles del municipio, de 11:00 a 15:00 horas. Actuación conjunta de los coros en las plazas Estación de Las Arenas y Estación de Algorta, a las 14:00 h.
Participaron un total de 26 coros, 22 de adultos y 4 escolares.

Algorta-Andra Mari.....16
Neguri-Gobela................1
Romo-Areeta..................5

Ostirala eta Astelehenean......... 4 eskola

Viernes 9

**CARNAVAL ESCOLAR**
El Aula de Cultura de Getxo colabora con los centros escolares del municipio organizando estos carnavales infantiles. En Algorta-Andra

oposizioaren” bidez lanpostu-zerrendako gainerakoekin gertatzen den bezala, zuzendari kudeatzailearen lanposturako izan ezik, horretan, noski, jartzen baitu goi zuzendaritzakoa dela eta “izendapen askekoa” dela.
Horregatik dugu kezka hau; ez dugu ulertzen, gure ustez trataera ezberdinarekin sartuko bailirateke lanpostu-zerrendan. Horregatik langileak egotearen alde gaude, baina ez dugu ulertzen nola utzi litezkeen hala agerian, lanpostu-zerrenda batean trataera ezberdinarekin. Horregatik izan da eskaera.

KOLDO:
Zure kexa jaso dugu, eta bozketara joko dugu.
Aldeko botoak: 7 (EAJ eta PSE)
Aurkako botoak: 3 (GUK)
Abstentzioak: 7 (PP, EH BILDU eta CS)
Horrenbestez, akta onetsi da, eta hurrengo puntura pasatuko gara: egindako jarduerak:

**EGINDAKO JARDUERAK**

EGINDAKO JARDUERAK

*Igandea, hilak 4*

**AGATE DEUNAKO ABESBATZEN XXXII. JAIALDIA**
Tradizioari jarraituz, Agate Deunaren ohorezko abestiak udalerriko kaleetan barrena, 11:00etatik 15:00etara. Abesbatzen baterako emanaldia Areetako Geltokiko plazan eta Algortako Geltokiko plazan, 14:00etan.
26 abesbatzak hartu zuten parte, guztira: 22 helduenak, eta 4 eskola-umeenak.

Algorta-Andra Mari.....16
Neguri-Gobela................1
Romo-Areeta..................5

Ostiralean eta astelehenean......... 4 eskola

Ostirala, hilak 9

**ESKOLAKO INAUTERIAK**
Getxoko Kultur Etxea udalerriko ikastetxeekin lankidetzan aritu da haurren inauteriak antolatzen. Algorta-Andra Marin eta Romo-


Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 – E-mail: kulturetxea@getxo.eus

Mari y Romo-Las Arenas, fiesta desde la mañana: desfile de disfraces, música
El carnaval escolar de Algorta no se llevó a cabo ya que los colegios, a la vista del tiempo, decidieron no salir.
En Romo si se celebró y tomaron parte, Artaza ikastetxea, Gobela ikastola eta Betiko ikastola, con un número aproximado de 900 participantes.

*Domingo, 11*

**TEATRO**
En la Escuela de Música Andrés Isasi de Las Arenas, a las 19:00 h., dentro del XII circuito "Mujeres en escena", LAS HEREDERAS, de la mano de AZTIAK. 296 asistentes.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Santiago Sainz pregunta:
¿Cuántos mercados de productos agrícolas o artesanales organizados por el aula de Cultura de Getxo se celebran al año'.
Únicamente el Mercado de San Lorenzo, el 10 de agosto en Algorta.

EH Bildu pregunta:
Mediante el Decreto 9/2018 se adjudica a Ikertu Organización el servicio de apertura de la biblioteca de Gobela, Las preguntas son las siguientes:

> ¿Porque no se ofrece directamente el servicio?, no hay trabajadores suficientes en el Aula de Cultura para abrir la biblioteca de Gobela?
>
> ¿Porque Ikertu organización?, se han pedido otras ofertas?

KOLDO
Paso a leer el informe elaborado por las Responsables de biblioteca.

*"La razón es que actualmente no hay personal suficiente en las Bibliotecas de Getxo para hacer frente a los amplios horarios de apertura al público que ofrecemos, así como al trabajo interno que generan las múltiples actividades y servicios que ofrecemos. En*

Areetan, festa goizetik: mozorro-desfilea, musika...
Algortako eskolako inauteria ez zen egin, ikastetxeek erabaki baitzuten ez irtetea eguraldia zela-eta.
Romon bai egin zen, eta parte hartu zuten Artaza ikastetxeak, Gobela ikastolak eta Betiko ikastolak; guztira, 900 bat parte-hartzaile.

*Igandea, hilak 11*

**ANTZERKIA**
Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:00etan, "Emakumeak eszenan" XII. zirkuituaren barruan, LAS HEREDERAS antzezlana, AZTIAKen eskutik. 296 pertsona bertaratu ziren.

**GALDE-ESKEAK**

Santiago Sainzek galdetu du:
Nekazaritzako edo artisautzako produktuen zenbat merkatu antolatzen ditu Getxoko Kultur Etxeak urtean?
San Lorenzoko Azoka besterik ez, abuztuaren 10ean, Algortan.

EH Bilduk galdetu du:
9/2018 Dekretuaren bidez, Ikertu Organización-i adjudikatu zaio Gobelako liburutegia irekitzeko zerbitzua; horri buruz, galdera hauek ditugu:

> Zergatik ez da zuzenean ematen zerbitzu hori? Ez al da dago langile nahikorik Kultur Etxean Gobelako liburutegia irekitzeko?
>
> Zergatik Ikertu Organización? Eskatu al da beste eskaintzarik?

KOLDO:
Jarraian irakurriko dut liburutegiko arduradunek egindako txostena:

*"Arrazoia da gaur egun ez dagoela langile nahikorik Getxoko Liburutegietan aldi berean aurre egiteko eskaintzen ditugun jendaurreko ordutegi zabalei eta eskaintzen ditugun jarduera eta zerbitzu ugariek eragindako barne-lanari. Lanaldi osoan 11 pertsona gara,*



Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 – E-mail: kulturetxea@getxo.eus

*equivalente a tiempo completo somos 11 más 79 personas en plantilla cuando deberíamos de ser entre 15 y 20 personas, por ello nos vemos obligados a subcontratar un porcentaje de jornada que oscila entre 30% y 40% anual, que se reparte sábados por la mañana de una de las salas de Gobela, tardes de verano de la misma sala, y algunas bajas o faltas repentinas y puntuales que se producen a lo largo del año y que no son sustituibles por otra vía.*

*La mayor parte de las ocasiones en que se producen bajas o faltas repentinas las sustituimos con el personal habitual, siempre que resulta posible, pero hay que tener en cuenta que estas sustituciones suponen tener que movernos constantemente de una Biblioteca a otra, con el consiguiente abandono del trabajo interno habitual que como consecuencia de ello se resiente.*

*El aumento de jornada de un Auxiliar Administrativo de Biblioteca que está planeado..*

Lo que se ha aprobado hoy.

*... dependiendo de cómo se distribuya su calendario, podrá servir para cubrir las bajas y faltas repentinas de las que hablábamos en el punto anterior, pero no para dejar de subcontratar los sábados por la mañana y las tardes de verano, puesto que esta Auxiliar Administrativo de Biblioteca ya trabaja en esas mismas jornadas de sábados y verano. Por tanto, la única manera de dejar de subcontratar a esa parte de personal Bibliotecario sería reduciendo el servicio, cerrando alguna Biblioteca los sábados y los cuatro meses de jornada de verano.*

... La segunda pregunta era porque se subcontrata precisamente con Ikertu..

*... Hay que decir que para esta cuestión hay varias razones objetivas. Los resultados: llevamos tiempo trabajando satisfactoriamente con esta empresa, que se trata de una empresa que atiende muy correctamente a nuestras necesidades, acostumbran a contratar a personal profesional que conoce las Bibliotecas de Getxo, porque ha trabajado con nosotros vía Lanbide, por ejemplo, o bien porque han sido usuarios, además mantienen a la misma persona por largo tiempo, lo que nos ahorra procesos de*

*gehi 79 plantillan, eta 15-20 pertsona izan beharko genuke; horregatik, azpikontratatu behar izaten dugu urteko lanaldiaren % 30-% 40, honela banatuta: larunbat goizetan, Gobelako geletako batean; udako arratsaldeetan, sala berean; eta, urtean zehar, bat-bateko zenbait huts egite edo baja puntual, beste bide batez ezin badira ordeztu.*

*Bat-bateko huts egite edo bajak gertatzen diren gehienetan, ohiko langileekin ordezten ditugu, ahal den guztietan; baina kontuan hartu behar da ordezko horiek egiteko etengabe mugitu behar garela liburutegi batetik bestera, eta horrek dakarrela ohiko barne-lana utzi behar izatea, eta horren eragina igartzen dela.*

*Aurreikusita dago liburutegiko administrari laguntzaile baten lanaldia handitzea...*

Hori, gaur onetsi da.

*... nola banatzen den haren ordutegia, horrek balio lezake aurreko puntuan komentatutako bat-bateko huts egite eta bajak betetzeko, baina ez larunbat goizetako eta udako arratsaldeetako lana azpikontratatzeari lagatzeko, zeren eta liburutegiko administrari laguntzaile horrek lan egiten baitu larunbatetako eta udako lanaldi horietan. Horrenbestez, liburutegiko pertsonalaren zati hori azpikontratatzeko modu bakarra litzateke zerbitzua murriztea, liburutegiren bat ixtea larunbatetan eta udako lanaldiko lau hilabeteetan.*

... Bigarren galdera zen zergatik azpikontratatu den Ikertu-rekin zehazki...

*... Esan beharrekoa da horretarako daudela zenbait arrazoi objektibo. Emaitzak: aspalditxotik ari gara ondo lan egiten enpresa horrekin. Oso era egokian erantzuten die gure beharrei; Getxoko liburutegiak ezagutzen dituzten langile profesionalak kontratatu ohi ditu, gurekin lan egin dutelako Lanbideren bidez, adibidez, edo erabiltzaileak izan direlako; gainera, pertsona bera mantendu ohi du denbora luzean, eta, hala, prestakuntza-prozesu luzeak aurrezten dizkigu. Sektoreko beste enpresa*



Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 – E-mail: kulturetxea@getxo.eus

*formación, etc. Pagan a sus trabajadores y trabajadoras mejor que otras empresas del sector, según tenemos entendido …*

Y finalmente comenta:

*…. Que se ha procedido a ponerse en contacto con varias empresas de este sector, habiendo recibido una respuesta de momento que es la empresa AREITEN. Pero las otras empresas son BARATZ, ODEI, ESCANBIT, AGIRIEZ y EUSKOEKIN."*

Esta es la respuesta que nos han dado.

Si quereis comentar algo.

IBON:
Igual no me ha quedado claro. Primero hemos comentado que hemos solicitado la memoria de la planificación, ahora hemos sabido que la recibiremos?

KOLDO:
Como sabeis se está trabajando en los usos. Cuando se haga dicho trabajo, entraremos en los siguientes.

PAULA:
Ya que se ha traído temas de personal a la Junta Rectora para poder modificar la RPT, nos gustaría saber si se va a tener en cuenta a las profesoras del Euskaltegi, que también en teoría creemos que pasaran a la Romo Kultur Etxea, se ha traído también uno de los puestos de hoy hacía también mención al complemento específico que es lo que ellas querían que se revisara y nos gustaría saber si en la misma línea se les va a dar el mismo derecho a poder tratar este tema por pasar a ser personal de la Romo Kultur Etxea nueva.

KOLDO:
Lo que nosotros hemos traido ha sido la creación de la nueva RPT. Esos nuevos puestos nos reclamó la S.S., y mediante la resolución firmada por mi se ha aprobado, no es una valoración de puestos, lo que tambien hemos traído ha sido el aumento de jornada con el fin de dar respuesta a la demanda de nuevos servicios, eso no es una valoración de puestos, la modificación de las

*batzuek baino hobeto ordaintzen die langileei, dakigunaren arabera…*

Eta, azkenik, komentatu du:

*…. Sektore honetako zenbait enpresarekin jarri gara kontaktuan, eta, oraingoz, baten erantzuna jaso dugu: AREITEN enpresarena. Beste enpresak dira BARATZ, ODEI, ESCANBIT, AGIRIEZ eta EUSKOEKIN."*

Horixe erantzun digute.

Zerbait komentatu nahi baduzue…

IBON:
Agian ez zait argi geratu. Lehenik, komentatu dugu plangintzaren memoria eskatu dugula, orain jakin dugu jasoko dugula?

KOLDO:
Dakizuenez, lan egiten ari gara erabileren gaian. Lan hori egiten denean, hurrengoei ekingo diegu.

PAULA:
Pertsonalari buruzko gaiak ekarri direnez Artezkaritza Kontseilura lanpostu-zerrenda aldatu ahal izateko, jakin nahiko genuke ea kontuan hartuko diren euskaltegiko irakasleak, zeren teorian uste baitugu Romo Kultur Etxera pasatuko direla; gaur ekarri diren lanpostuetako batek ere aipu egiten zion berariazko osagarriari, eta irakasleek horixe nahi zuten berrikustea. Jakin nahi genuke ea ildo berari jarraituz gaia jorratzeko eskubide bera emango zaien Romo Kultur Etxe berriko langileak izatera pasatzeagatik.

KOLDO:
Lanpostu-zerrenda berriaren sorrera ekarri dugu guk. Lanpostu berri horiek eskatu zizkigun Gizarte Segurantzak, eta nik sinatutako ebazpenaren bidez onetsi da, eta ez da lanpostuen balorazioa; lanaldia handitzea ere ekarri dugu, zerbitzu berriei erantzun ahal izateko, eta hori ez da lanpostuen balorazioa; derrigortasun-datak aldatzea ez da lanpostuen



Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 – E-mail: kulturetxea@getxo.eus

fechas de preceptividad no es una valoración de puestos y eso es lo que solicitan los trabajadores del Euskaltegi Municipal, y a lo que solicitan los trabajadores del euskaltegi Municipal la respuesta es que la misma se hará posteriormente a la del Ayuntamiento. Primero se llevará a cabo en el Ayuntamiento y con los criterios y cambios qu ese dagokionez eta hori da Udal Euskategiko langileek eskatzen dutena erantzun berdin berdina: Lanpostuen balorazioa eramango da eta egingo da lehenengo eta behin Udaletxean, eta Udaletxean ezartzen diren irizpideak eta ezartzen diren aldaketak kontutan izanda Erakunde Autonomoetara jaitziko dira balorazio horiek eta bertan emango dira, eta balorazio horren barruan Kultur Etxean ematen denean, Udal Euskaltegiko lengileek izango dute baita ere aukera balorazio horretan.
Baina hau beste askotan erantzun egin dut eta erantzun berdina da
PAULA:
Comprendiendo lo que comentas Koldo, yo las veces que he tenido la oportunidad de hablar con las profesoras decían que lo primero que querían era que se revisara su complemento específico, porque es lo que veían que era muy desigual con otras profesoras de Euskaltegis de la zona y además que yo sepa, que puede que me equivoque, la valoración de puestos la está reclamando todo el personal en general no solo las profesoras, entonces por eso digo si hubiera la posibilidad de revisar en concreto el complemento específico para saber si tienen razón para su reivindicación las profesoras del Euskaltegi, y en caso de que no procediera .. luego ya tenerlo en cuenta como lo que están pidiendo que es la valoración de puestos, que creo que es algo más global, no solo de los Organismos Autónomos, sino que lo piden desde todo el Ayuntamiento.
KOLDO:
Las reclamaciones no se dan únicamente en el euskaltegi Municipal, también en la propia kultur etxea, en otras áreas también están reclamando, por lo tanto, porque a unos sí y a otros no?. Además, el "complemento específico" tiene en cuenta las especificidades del puesto de trabajo. Por lo tanto habría que examinar la valoración de ese puesto de trabajo.

balorazioa; eta horixe eskatzen dute udal euskaltegiko langileek, eta udal-euskaltegiko langileek eskatutakoari ematen diogun erantzuna da haien lanpostuen balorazioa udalekoaren ondoren egingo dela. Lanpostuen balorazioa eramango da, eta egingo da lehenengo eta behin udalean, eta, udalean ezartzen diren irizpideak eta ezartzen diren aldaketak kontutan izanda, erakunde autonomoetan egingo dira balorazioak, eta bertan emango dira; balorazio horren barruan Kultur Etxean ematen denean, udal-euskaltegiko langileek ere izango dute aukera balorazio horretan.

Baina hau beste askotan erantzun egin dut, eta erantzun berdina da
PAULA:
Ulertzen dut komentatu duzuna, Koldo; nik irakasleekin berba egiteko aukera izan dudanean, esaten zuten nahi zuten lehenengoa zela euren berariazko osagarria berrikustea, ikusten baitzuten hura zela inguruko beste euskaltegietakotik oso ezberdina. Gainera, nik dakidala, agian oker nago, lanpostuen balorazioa irakasleak ez ezik langile guztiak ari dira eskatzen, oro har; horregatik galdetu dut ea aukerarik dagoen berariazko osagarria zehazki berrikusteko, hala jakiteko arrazoia duten euskaltegiko irakasleek euren aldarrikapenean; eta, egokia izango ez balitz, gero kontuan hartzeko, eskatzen ari diren lanpostuen balorazioa bezala, ze uste dut hori kontu orokorragoa dela, ez bakarrik erakunde autonomoetakoa, baizik udal osoan eskatzen dutela.

KOLDO:
Erreklamazioak ez dira bakarrik udal-euskaltegian egon, Kultur Etxean bertan ere bai, eta beste arlo batzuetan ere erreklamatzen ari dira; hala bada, zergatik batzuei bai, eta beste batzuei ez? Gainera, "berariazko osagarriak" kontuan hartzen ditu lanpostuaren ezaugarriak. Horrenbestez, lanpostu horren balorazioa aztertu beharko litzateke.


Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 – E-mail: kulturetxea@getxo.eus

Getxo
KULTUR ETXEA

Nuevamente digo que la valoración se llevará a cabo en el Ayuntamiento y posteriormente se llevará a cabo en los organismos Autónomos y también al Aula de cultura y dentro del aula de cultura al euskaltegi Municipal.

Berriro ere diot udalean egingo dela balorazioa, eta geroago egingo dela erakunde autonomoetan, baita Kultur Etxean ere, eta horren barruan udal-euskaltegian.

Y sin más temas que tratar se dio por finalizada la reunión

Aztergai gehiagorik ez dagoenez gero, batzarra amaitutzat eman da.

Izpta./Fdo.: Manu Alkiza
Kontseilu Artezkariaren Idazkaria
Secretario del Consejo Rector

Getxo
KULTUR ETXEA

Izpta./Fdo.: Koldo Iturbe
Kontseilu Artezkariaren Lehendakaria
Presidente del Consejo Rector

GETXOKO KULTUR ETXEA - AULA DE CULTURA DE GETXO

Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 – E-mail: kulturetxea@getxo.eus